

## David Roberts: «Oso bortitza izan zen polizien jarrera»

DONOSTIA

David Roberts 'Greenpeace-ko' partaidea, herenegungo gertaeretakoko lekuko izan zen zenetako bat du. Berak guzti honen berri eman zion EGUNKARIAri. «Arratsaldeko zazpiak inguruan izango zen Armadaren untiak heldu zirenean. Segituan pertsona bat ipini genuen 'Baltica-ko' aingurari lotuta, aulki batean eskegita. Armadaren untiak bi 'zodiac' jaitsi zituen eta gure taldekidea atxilotu».

Robertsek ondoko pausuak azaldu zituen atzoko prentsaurrekoaren ondoren EGUNKARIArekin izaniko solasaldian: «Orduan gure 'zodiacak' agertu ziren eta boien eta Goardia Zibileko 'zodiacen' artean paratzen ahaleginu ginen, berauek kendu ahal ez izateko. Goardia zibil bat, bereziki, oso bortitza izan zen eta aitzo luze bat aterata, gure 'zodiacak' zula-tzeari ekin zion. Guk erresistentzia pasiboa baino ez genuen egin momentu orotan».

Ekologista honen iritziz, segurtasun indarren portaera zeharo gaitzestekoa izan zen: «Nire ustez gehiegizkoa izan zen beraien jarrera, oso bortitza. Gorabeherak ordu t'erdia inguru iraun zuten guztira».

Atxilotzeko erak ere kritikagarriak dira, Greenpeaceko partaideak aditzera eman zuten bezala «modu arriskutsuan egin bait zituzten». Polizia taldearen 'zodiacetan' sartu zenean, bertan zeudenei lokarriak jarri zizkieten, «bata besteari loturik». Honek arrisku handia dauka, Robertsen ustetan, «norbaite uretara jausiz gero ez daukalako aukerarik igeri egiteko eta ito egin daiteke».

Goardia Zibilak untiak patroira —'Tabarca'— eraman zituen gero eta atxilotutakoa atzekaldean lotu. «Dena dela, azpimarratu egin behar da untiaren giro askoz lasaiagoa zela, marinelekin ez zen inolako arazorik egon eta Polizia izan zen jarrera gogorra erakutsi zuten bakarra» amaitu zuten ekologistak.

## Hondakin toxikoak Bilbon



Greenpeacearen protesta ekintza eragotzi zuen Armadaren untiak.

J. SIMAL

# Bilboko portuko langileek 'Baltica' ez husteko erabakia hartu dute

'Greenpeaceko' bost kideak aske utzi ditu Barakaldoko epaitegiak

**B**ilboko portuko langileek 'Baltica' untiaren zeuden hondakin toxikoen deskargara ez egitea erabaki eta iharduera hau galerazi egin zuten atzo. 'Greenpeace' taldeko bost kideak libre utzi zituzten atzo epaitegian deklaratu eta gero.

Z. ZAMAKOLA / BILBO

'Baltica' untiak deskargatzeko lanak goizean goiz hasi ziren atzo Santurtzin —Bilboko portuan—, bertako langileek 'M.V. Greenpeace' untiaren emaniko prentsaurrekoan esan zuten. 'Baltica' untiak zuten karga gehiena goizeko zortzietatik aurrera ateratzen hasi ziren. Orduan ordezkari sindikalak harantz abiatu ziren, baina Goardia Zibilak galerazi egin zien sarrera.

Portura sartu zirenerako untiak hondakin gehienak lehorrean edo kamioietan zeuden, 'Aser' enpresarako bidean. Une horretantxe erabaki zuten langileek lan hori ez egitea. Ordurako 200 tona hondakin baizik ez zen geratuko 'Baltica' barruan.

**GARRAIOAREN BALDINTZA KASKARRAK** Langileen ordezkari sindikalek adierazi zuten,

untziak 1.700 tona garraiatzen zituen orotara. Haietariko 1.500, beraz, lehorrean zegoen jadanik. Portuko langileek bihar arte atzeratu zuten untiak husteko lana.

Ekologistek eta sindikatuetako ordezkariak hondakin toxikoen deskarga eta garraioa nola egin zen ere salatu zuten. «Deskargatutakoa lurrean pilatuta zegoen, inolako babes barik. Kamioiak, berriz, tolo eta besterik gabe zihoazen, eta beraz hondakin gehienak hautsa bidean barreiatzen zuten», azaldu zuten.

John Backet-ek, 'Greenpeacearen' nazioarteko garraio toxikoen kanpainako koordinatzaileak, materiala garraiatzeko modu egokia «bestelakoa eta izugarria» zela ziurtatu zuten.

«Beste leku batzuetan ilargira joateko bezalako jantziak erabiliko lirateke. Hemen, berriz, ez».

Herenegun Goardia Zibilak atxilotu zituen 'Greenpeace' taldeko bost ekologistak libre utzi zituzten atzo, talde honek jakin erazi zuenez. Atxilotutakoek Barakaldoko epaitegian deklaratu zuten eta ondoren aske uzteko agindua eman zuten epaileak.

**KRIKAK EUSKO JAURLARITZARI** 'Greenpeaceko' ordezkariak

ekintza kanpainarekin batera, «ereziklariarako aitzakiaz ezkututzen den hondakin toxikoen garraioaren kontrako kanpainan» borroka politikoak duen garrantzia azpimarratu zuten, eta horren inguruan dagoen hutsune legala ahalik eta lasterren betetzeko eskatu zuten.

Ekologisten iritziz, «Eusko Jaurlaritzak ez du hondakinak prezintatu eta aztertze egin zuten promesa bete, nahiz eta hasiera batean halaxe egingo zuela esan».


'Greenpeacearen' ekintza honek Bilbo inguruko herritarrengandik jaso duen harrera onaren beste muturrean, instituzioengandik hartuta-

ko tratua txarra gaitzetsi zuten ordezkari ekologistek. «Atzipetuta gaude euskal instituzioetatik jaso dugun erantzunik ezaz, batez ere kontutan hartuta gure helburua hemengo ingurugiroa defendatzea zela», azaldu zuten Juan Lopez de Uralde, bertako koordinatzaileak.

'Baltica' untiaren hondakinaren inguruan izan den ekintza «garaipentzat» jo zuten ordezkari ekologistek, «helburua ez delako legala, morala baizik. Bilboko hiritarrek jakin dezaten hiria hondakin industriaren jasogunea dela».

Herenegun Goardia Zibilak egindako agerraldiari «gehiegikezkoa» eritzi zioten. «Besteak beste, inor ez zen guregana etorri boiak kentzeko agintzeko, eta halako indar erakuspene ez zen beharrezkoa» esan zuten ordezkari ekologistek.

Kazetariaren galderei erantzunez, ukatu egin zuten momentu batean ere inor borondatearen aurka hartu zutenik. «Gure tratua untiaren marinelekin oso ona izan da, gainera boiek ez zitoten oztoporik ipini untiari mugitu ahal izateko, eta kapitaina salaketa ipintzera jaitsi zenean ere, ez zuten inolako arazorik izan halaxe egiteko».



Portuko langileen jarreraren berri eman zuten 'Greenpeacekoek'.

## LABURREAN

### GAZTE bat hilik lapurtutako kotxearekin istripua izan ondoren

Gazte bat hil zen eta beste bi larri zauriturik izan ziren lapurtutako kotxe batekin izandako istripuaren ondorioz. Ezbeharra Donostiako Trintxerpe auzoan gertatu zen atzo goizaldeko laurak aldera. Pedro Angel Sainz Pardo, Altza auzoan bizi zen hemeretzi urteko gaztea eta kotxearen gidaria, hil egin zen istripuan. Heriotza ia momentuan izan zen, kolpeak eragindako politraumatismo eta bihotz krisiaren ondorioz.

### KANBOKO termetan neurri bereziak ezarri dituzte

Kanboko termetan seguritate neurri bereziak hartu dituzte, Barbotan-en izandako istripu larriaren ondoren. Kanboko etxe hori, Barbotan bezala, 'Eguzkiaren Terma Kate' (Chaîne Thermale du Soleil) Sozietatearen parte da. Barbotanen hogeit hamar pertsona hil ziren osteguneko alkitran beroak sortutako suaren ondorioz. Lagun hauek gasak ito zituen. Hau dela eta, segurtasun neurri bereziak jarriko dituzte Kanboko termetan.

### SEI kilo kokainarekin iruine seme bat atxilotuta Barajasen

Jose Luis Zabaltza Razkin, Colombiara ihes egin zuten promotore iruñarra atxilotu zuten osteguneko Barajaseko (Madril) aireportuan 6,800 kilo kokaina aldean zituena. Zabaltzak urtarrean egin zuten ihes Colombiara, 500 milioi pezetako iruzur inmobiliarioa egin ondoren. Promotorea, Colombiatik zetorren hegazkinetik jaitsi zen beste bi pertsonarekin batera, eta une horretan atxilotu zuten Goardia Zibileko Estupefazianteen Zerbitzuko kideek.

### GIZAKIA Helburuk 205 milioi pezeta eskuratu zituen iaz

Bizkaiko Gizakia Helburuk 205 milioi pezeta jaso zituen iaz instituzio, erakunde publiko zein pribatuaren dirulaguntza eta donazioen bidez. Era berean, 41 milioi pezetako inbertsioak egin zituen Gizakia Helburuk, instalazio zaharrak egokitu eta berriak zabaltzeko xedez. Jasotako dirulaguntzetatik hogeitabost milioi, drogomenpe-kotasuna gaintzen ari diren familiar-terkoek emandakoak izan ziren.

### BARANDIARAN LIZEOAK

B.B.B. (BUP)-eko **KLASEAK EMATEKO LIZENTZIATUAK BEHAR DITU**

— BI INGELESERAKO  
— BAT EUSKARARAKO

Interesatuak "curriculum vitae" LIZEORA ekarri astelehen edo asteartean.

HELBIDEA:

M. Lardizabal, 26

20009 DONOSTIA

Tfna.: (943) 21 66 37